

DURANGOKO TAO BERRIA ASTEAZKENEAN JARRIKO DA MARTXAN

- **San Ignacio Auzunean ez da TAO zerbitzurik izango, arratsaldeko ordutegia 16:00etatik 20:00etara izango da eta anbulatorioko inguruan, txandatze-maila altuko gunee berde bat izango da.**


Durango 2018 10 22

Durango Udalak asteazken honetan, urriak 24, jarriko du martxan TAO zerbitzuaren ordenantza berria. Pasa den uztailean ospatutako osoko bilkuran ordenantzaren aldaketa onartu ostean, asteazken honetan indarrean sartuko diren neurri berriek, udalerriko merkataritza hobetu, gunee batzuetako ibilgailuen txandatzea bultzatu eta garraio publikoaren erabilera sustatzea bilatzen dute.

TAO zerbitzu berria, LEBER enpresak egindako azterketa batetik eta Udalak abian jarritako prozesu parte hartzailean herritarrek egindako ekarpenetatik sortu da. Gogoratu beharra dago, herritarrei egindako azterketak azaltzeko, eta eskaerak eta iradokizunak jasotzeko, 2017ko azaroaren 30ean Landako Erakustazokako Elkartegian bilera bat egin zela, non herritarren 13 proposamen jaso ziren (3 foroan bertan eta beste 10 helbide elektronikoaren bitartez)

Herritarren ekarpenak eta aipatutako azterketako gomendioak kontuan hartuz, ordenantza berriak jasotzen dituen aldaketa nagusien artean hurrengoak azpimarratu daitezke:

- San Ignazio auzoa TAOren kudeaketa sistemaren araupeko gunee gisa ezabatu da. Ibilgailuen artean ez da aurreikusten zen errotazio maila eman.
- Landakoko Anbulatorioan, osasun-zerbitzuetarako erabiltzaileak gehienez 90 minutu egon ahal izateko, txandatze-maila altuko gunee (Gune Berdea) ezarri da
- Arratsaldeko ordutegia aldatu da, 16:00etatik 20:00etara ezarriz, merkataritza-ordutegiekin bat eginez.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

► **PRENTSA OHARRA**

Durangoko Udalak TAO zerbitzua bi helburu nagusirekin ezarri zuen hain zuzen ere, alde batetik, udalerriko denden eta zerbitzuen sarrera sustatzeko eta bestetik oinez edo bizikleta bidezko lekualdaketa jasangarriagoak bultzatzeko, ibilgailu motordunen mugimenduak saihestuz, Durangoko 2015-2025 Herri Mugikortasun Jasangarriaren Planak jasotzen dituen irizpideak betez.

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus